



2024an PEGORAN EGINDAKO JARDUERAREN LABURPENA

	ATENTZIO MOTA	2024
1	AURREZ AURREKOA (TIKETAK)	31771
2	TXANDAREKIN	1219
1	AURREZ AURREKOA(IZAPIDEAK)	44279
3	TELEFONOZ (IZAPIDEAK)	6869
4	010 ZEREGINAK (IZAPIDEAK)	2606
	GUZTIRA (IZAPIDEAK)	53754

2024an, orokorrean, PEGORAK eskaintzen dituen arreta mota guztietan (aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta barruko zereginak) 2023an baino arreta gutxiago eman dira. Horrela:

-Guztira, 2795 tramite gutxiago egin dira, hau da, % 4,94 gutxiago (2023an, 56.549; 2024an, 53.754).

- 2023. urtearekin alderatuta, telefono bidezko arreta da beherakada nabarmenena izan duena, 2023n baino % 16,10 izapide gutxiago egin baitira (1.319 izapide gutxiago).

- Aurrez aurreko arretari eta bestelako zereginei dagokienez (010 zereginak), oro har, 2023ko kopuruen antzerakoak dira aurtengoak, baita egindako izapideen batez besteko iraupena ere (6:53 min 2023an, eta 6:52 min 2024an).

-Autozerbitzuko makinari esker, 21.117 izapide gutxiago egin dira aurrez aurre (14.772 ziren 2023an, eta 15.587, berriz, 2024an); batez ere errolda-agiriak egiten dira makinan, izapide horiek konplexutasun txikiagokoak eta azkarragoak izan ohi baitira, eta iraupen luzeagoa izaten duten tramiteak gelditzen dira aurrez aurreko arreta bidez egiteko.

Makinaren datuak

MAKINAREN DATUAK	2024
IZAPIDEAK	3485
BANAKAKO ERROLDA	12060
ERROLDA HISTORIKOA	3527
ORDAINDUTAKO ERREZIBOAK	754
ORDAINDU GABE DAUDEN ERREZIBOAK	554
ORDAINKETAK (MIPAGO)	737
GUZTIRA	2117

1. AURREZ AURREKO ARRETA

31.771 tiket edo txartel sortu dira (hitzorduekin, zitarik gabe eta birtualak) eta horiek, aldi berean, 44.279 izapide eragin dituzte (batez besteko iraupena: 6:52 min). Tiketa duen pertsona batek izapide bat baino gehiago egin dezake; horrexegatik, da izapide-kopurua igorritako tiket-kopurua baino handiagoa.



2. TELEFONO BIDEZKO ARRETA

Telefonoz egindako izapide-kopurua jeitsi egin da (6.869 arreta) eta izapide horien iraupena zertxobait handiagoa izan (batez beste 04:12 min 2023an eta 05:09 min 2024an).

3. BARRUKO ZEREGINAK ETA KANPAINAK

2.606 izapide egin dira ez direnak ez telefono bidezkoak ez aurrez aurrekoak. Hemen sartzen dira, adibidez, sail bakoitzean erregistratzea Correosetik jasotzen den dokumentazioa, baita SIR bidez iristen dena edo beste administrazio batzuen egoitza elektronikoetatik Udalari jakinarazten zaiona.

Aipatu beharra dago gaur egun Udalera edozein bidetatik iristen den dokumentazio guztia PEGORAn zentralizatzen dela; Pegoran bertan egiten dira sailetako erregistroak edo Impulsatik iristen diren erregistro orokorrak dagokion sailera bidaltzen dira.

Posta elektroniko bidezko arreta ere Pegoran egiten da, baina erantzundako mezu elektroniko bakoitza ez da izapide gisa jasotzan, beraz, zaila da bide horretatik emandako arretak zenbatzea.

Egindako lanen artean aipatzekoak dira, era berean, Umeak Eskolara eta Dirulaguntzak ikasleei kanpainen kudeaketa, Udalaren ikastaroetako matrikula guztien mekanizazioa, beste laguntza eta dirulaguntza batzuen mekanizazioa (200 euro, esaterako)... eta beste administrazio-lan batzuk, PEGORatik egiten diren baina estatistiketan islatzen ez diren zereginak,dira, ez baitira txandakakoan markatzen.

Umeak Eskolara eta Dirulaguntzak ikasleei kanpainei dagokienez, hauek izan ziren datuak:

UMEAK ESKOLARA	2024
Emandako dirulaguntza kopurua	3.061
Emandako diru kopurua (€)	183.003,91

DIRULAGUNTZAK IKASLEEI	2024
Emandako dirulaguntza kopurua	1.377
Emandako diru kopurua (€)	82.373,58

4. ITXAROTE DENBORAK, ARRETA-ORDUTEGIAK ETA HITZORDUAK

PEGORAn arreta jasotzeko batez besteko itxaronaldia 10:18 minutukoa izan da (13:01 minutu hitzordurik gabe joaten diren herritarrentzat eta 04:12 minutu hitzorduarekin joaten diren herritarrentzat). 2023. urtearekin konparatuz, zertxobait jaitsi da itxaronaldia, 11:11 minututik 10:18 minutura.

Goizetan egin da izapide gehien, tiket guztien % 86,38, eta gainerako % 23,62a arratsaldeetan. Ordutegiei dagokienez, tiket gehienak 09:00etatik 13:00etara lizitatu dira (% 79,49).



EIBAR

Herritarren Zerbitzurako Bulegoa
Oficina de Servicio a la Ciudadanía



Aurretik hartutako hitzorduen kopuruak ere gora egin du: 1.219 pertsonak eskatu dute aurrez aurretiko hitzordua PEGORARA etorri aurretik.